

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittor Kapanaga Elorza (Otxandio 1925-2011)



Bergarako UNEDen emandako hitzaldia *Euskararen Historia* zikloaren barruan

Eguna: 1995-II-4

Titulua: *Euskaldunen erlijio zaharra*

Euskarria: Kaset analogikoa. (Badihardugu-ren fondoa)

Grabazioa, transkripzioa eta edizioa: Juan Martin Elexpuru

Argitalpen data: 2011ko azaroa

Audioa entzungai: Iraupena: 1:52:06. Formatoa: MP3.

Euskaldunen erlijio zaharra

AURKIBIDEA

Sarrera

- 1.- Tubalek ekarri omen zuen euskera
- 2.- URTE: uraren aroa ala eguzkiaren aroa?
- 3.- AR , UR eta EGU
- 4.- Euskarazko -DU, -TU latinezko -TUM partizipiotik hartua ote?
- 5.- Etimologia xelebreez eta uste okerrez
- 6.- Esaera zahar eztabaidatua: *Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian (Refranes y Sentencias, 1596)*
- 7.- Euskaldunen antzinako erlijioaz. EGU. Asteko egunak. EGUENA eta ORTZEGUNA
- 8.- Gaurko Euskal Herria eta euskera, antzinako atzerakadaren ondorioa
- 9.- BARIKUA eta LAURENBATA
- 10.- UGAZAMAK eta UGAZABAK
- 11.- ARTUR erregea. Georgiarrak KARTURI
- 12.- Haritza, urkia eta lizarra, euskaldunen hiru arbola sakratuak
- 13.- Noiz sartu zen kristautasuna Euskal Herrian? Arabiarren erasoak; Saltan eta Mayuak
- 14.- ARA erroa, misterio askoren giltzarria
- 15.- ARREN eta URREN
- 16.- Aratusteak. Txitxiburduntzi, erlijio zaharraren arrastoa
- 17.- Durangoko herejia, erlijio zaharraren agerpena 1444an
- 18.- Solasaldia

Sarrera

Ahalegina egingo dugu argi ikusten edo erakusten. Batez ere niri hori tokatzen zait, hainbat argiren geratu dadin. Hasteko, hizkuntzak: hizkuntza guztiek euren mezua izaten dute, baina batez ere hizkuntza zaharrek. Euskerak ez mezu bakarra, mezuak bialtzen, ekartzen dizkigu gauza askotaz, eta euren artean erlijinoari buruz. Ikusiko dugu martxan zer.

Baina, nahiz eta unibertsitate baten egon, esan beharrekoak esan egin beharko ditut. Noraino hizkuntzak ematen dizkigun bideak, eta noraino erabiltzen ditugu, erabili ahal ditugu. Ohitura txar asko dugula uste dut, eta horien artean unibertsitateak ere irendu egiten gaituela, gaurko sistemak. Irendu. Zer pasatzen da? Ba unibertsitate baten lanak egin behar dituenak-eta ohituta daude: zitak, zitak, jarraitu egin behar duzu. Ni ez naiz unibertsitatean ibili, esan dizue Juan Martiñek, baina zitaren menpekotasun horrek esan nahi du jarraitu egin behar duela, beste batek esan duena erabili eta erabili. Eta gure askatasuna zer? Nun dago gauzak berriz ikusteko eta egizat dauden gezur sakratuak gezurtzat salatzeke, edo gezurtzat dauden egi gordinak egiztatzeko?

Zer pila bat daukagu, esaterako tubalismoa. Gaur historialari askok eta... Entzungo zenuen, ez? Tubalismoa. Tubal, orain dala mila ta lauhun urte edo San Isidorok idatzi omen zuen Tubal izan zala, Noen biloba, penintsula poblatzera etorritakoa, eta Flavio Josepok be erabili omen zuen hori... (*barkatu, baina orain notak hartzen hasten bazarete kakanaste bat egingo duzue; gero gaian sartzen garenean beharbada...*). Eta bai, Tubal. Eta hori España osoan, badakizue, nahiko zera da: *Los descendientes de Tubal. Tubal pobló la Península*. Alde batetik Biblia bera hor nunbaiten idatzia da. Bakotxaren sentimentu erlijiosoak-eta errespetatzen ditut, danenak, baina zientifikoki gauza bat ikusi behar danean uste dut zientzia hartu behar dala bidetzat eta ez sineskerak edo eritxiak. Biblia bera noizbait idatzi zan, guri txikitari esan ziguten Jainkuak idatzi zuela baina gaur hori ia ez da. Hebreotarren historia dala? Gehiena bai, baina Genesis ez, esate baterako. Hori suposatzen da nunbaitetik hartua zutela, kaldeo-sumerioar edo hortik.

1.- Tubalek ekarri omen zuen euskera

Hala ere, zenbat urte? Zortzi mila urte? Bibliarik gehienak bost mila urte. Askota jota, zortzi mila urte? Horrela hartu behar da. Orain zortzi mila urte euskeraren egoera zer izango zen? Gainbeheraka seguraski, erretiradan, seguraski. Eta hartu dezagun, Bibliak diño hori baina orduan Biblia bera aztertu behar genuke. Genesisen agertzen da Noe. Baina lehenbiziko: zenbat seme izan zituen Adanek? Bi. *Kain* eta *Abel*, ezta? Horrela da? Hau gaiztoa zen (*Kain*), hau gazterik hil zan (*Abel*), eta orduan kasu honetan gu... Honek hebreotarrak dira; erlijino guztiak mensaje bat darama bere herriarendako. Eta gu nundik gatoz? *Kainengandik* ez, keba! *Abelengandik* ez, gaztea zela hil zan. Bibliak berak esaten du beste bat izan zuela: (*etena**) *Set*. Gure arbasoa, *Set*. Seten ondorengoak ziran hebreotarrak. Bi-hiru baziren, baina gero uholdea dator, uriola, eta Noe bakarrik geratzen da bizirik. Honek ere (alabak ez dira aipatzen, ez zuten balio edo; nahiz eta danak alabarengandik sortu gero) hiru seme izan zituela. Hoiiek bai badakizkizue, ez? *Sem*, *Cam* eta *Jafet*. Ez da inor konturatu berberak dirala, errepikatuak?

Errepikatutako izenak dirala, pertsonaje... Zer dago hor? Mensaje fonologiko bat, hizkuntza arazo bat, seguraski. Hori sartu beharko da egunen baten sumerio edo kaldeo hizkuntzak zertuta, baina *Set*, *Cam* eta *Abel-Yabe (Jafet)* berdinak dirala.

Beraz, Jafet holako fenomeno bat bada, honen semea Tubal zer ote da? Eta hori etorri zala, Penintsula poblatu zuela eta hori. Nora goaz? Zer zientifikotasun dauka horrek? Neretzako hutsa. Hor balio duena da hori, fenomeno hori agertzen dala. Horrek zerbait, mensajeren bat, mezu bat baduela. Baina Jafet hori, Tubal... Gero beste batek idazten du Tubal ez zala izan, horren iloba baino, horren anaia baten semea, Tarsis izan zala, eta hortik Tarsos eta. Gezur pila baten ganean bagabiltzala. Eta gure euskal herri honetan ere ez gara salbatzen gezurretatik. Beste hau nik uste dot argi ikusten duzuela, Tubalen ipuin hori nun basatu daitekeen.

2.- URTE: uraren aroa ala eguzkiaren aroa?

Hemen ere baditugu. Esaterako: *Los vascos denominan al año como periodo de agua*. Hau irakurri duzue batzun batzuek, ez? UR-TE: *Periodo de agua*. Eta gure burua zertarako dago? Sinesteko? Txikitan amamak esaten ziguna: "Bai, bai, gauerdian pasatuko da Anbotoko zera, eta ikusiko duzue...". Eta sinetsi egingo dugu? Gauza polita da. Gauzak sinestea oso polita da. Baina barruak onartu behar du. Eta URTE: *Periodo de agua*. Pentsatu dezagun urtea hau dala (*arbeleko marrazkia*), hemen amaitzen da *periodo de agua* delakoa, eta hausturarik gabe, bata amaitzen dan momentuan bestea hasten da; beraz, hor ez dago hausturarik. Beste *periodo de agua* bat berdina bada, ez dago periodorik. Ez dauka bukaerarik, ez dauka eperik, limiterik, ez dago periodorik. Hori gezurra da. Ze bestela *Uriola [agua?]* izango litzateke: *Los vascos denominan la historia como el diluvio*. Oso erreza da, planteamentua eginda dago.

3.- AR , UR eta EGU

Beste gauza bat izango da esatea: *Los vascos denominan al año como el periodo de UR*. Eta Ur? Ur = *agua*? *Agua* esateko IZ ere badago euskeran. *Izotza, itsasoa, istila...* Eta GAR: *garbia, gardena, legarra, langarra...* Beraz, hori asmatu duenak..., ez zaio burua ile barik geratuko. *Periodo de UR*. UR hori zer genuke? Ba euskera ondo sakonduz gero, UR ... Badugu fenomeno bat, eta gaurkoz beldurra dute [...]. Nik uste irentze zer hori nahiko sakoneraino jota dugula; irentasun asko dagoela. Zer fenomeno daukagu fonema balio unibersaleko horretan? Eta UR da bat. Ba, nere eritxiz behintzat, uraren aparte, UR, zer esan nahi du? AR arra da eta UR emea da. URRUSA... Zuek ez duzue ezagutzen hori? *Urrusa* lau animaliarekin erabilten da, baina erabilten da erabat! Zu artzain batengana joaten bazara eta "Zu, ardiak umea egin du. Emea egin du?" esaten badiozu, holan begiratuko dizu: "Hau nundik ote dator?". *Urrusa* egin du ala *arra*? AR eta UR arra eta emea dira.

UR bada gero frutu generikoa ere. *Ezkur, intxaur, urun*. Orain euskera batuan nahiko ilunduta geratzen dira hoiek. Jeneralki, sakoneko balio gehienak mendebaleko euskeran agiri dira. Gehienak, ez danak. Iparraldean ere zertzen dira, Zuberoan eta; Gipuzkuan ere bai banakan bat, baina gehienak mendebaldean. Esplikazio hori hizkuntzari bilatzeko mendebaldera jo

behar da. Eta egunen batean jo beharko da linguistikak aurrera egingo badu, bide hori hartzeko. Nik uste dut beste bideak agortuta daudela.

Eta UR da distantziaren zera, UR, URRUN, URBIL. *Ur*-etik sortzen da. UR = *cerca*, URRUN = *no cerca*; URBIL = *enderredor*. Baina orain badirudi *urbil* hartzen duenak *ur* ez duela ametitzen. *Ur* da kasu honetan generatriza, hortik sortzen dira danak. *Ur* da oina, hortik URRATS, URGUN = *cojo*, eta URTUTSIK. Egunen baten grekora jo beharko litzake *ortos*-eta zer dagon hor. Kaso honetan zer izan daiteke *ur*? Ba nire eritxian, buelta asko emanda gero, noizbaten eguzkiari emandako izena. Argia, euskal pentsamentu zerean, argia eta eguzkia ez dira gauza bera. Eguzkiak ez du sortzen argia. Eta hori EGU bera ere “argia” da. Argia izango litzateke eguzkiaren aurretik sortzen dana. Izan ere, fisikoki ere horrela agertzen da.

EGUZKI bera, *eguzki* hiza hartzen badugu ere... Nik inoiz entzun izan dut: *Los vascos adoraban al sol*. Eta hori nahiko jeneralizatua da. *Cómo iban a adorar al sol si lo denominan con partitivo? Eguzki* partitibo bat da, EGUren partitiboa. *Egu* da hor hitz nagusia. *Egu* da argia, baina ARGIA ere argia da. Orduan, nire ustez da eguzkiari emandako izenetatik bat. Eta hori horrela definitu izan balu lehenengo buruargi horrek: *Los vascos denominan al año como el periodo de ur*. *Periodo del sol*, zer da besterik? *Periodo del sol*. *Eguberri, ekain, eguberri*. Orduan bai, orduan egia da. Ez duzue uste? Eguzkiaren ziklo bat. [...]

4.- Euskarazko -DU / -TU latinezko -TUM partizipiotik hartua ote?

Hor ikusten duzue zenbat gezur darabilgun. Beste pila bat ere badaukagu. Esaterako, -DU: *Sufijo tardío proveniente del latín...* Uste dut estudiatu duzuela hori. Sumeriarrak, sumeriar hizkuntza orain sei mila urte idazten zan. Orain dabilta irakurten edo irakurri nahian edo. Eta *du* honekin egiten zituen aditzak. Drabidikoak orain hamar mila urte baziran Indian eta. Sanskritoa bera baino lehen drabidiko hizkuntza zaharragoa zegoen. Hori diote behintzat. DUrekin aditzak egiten dira drabidiko hizkuntzan. Euskera, norbaitek esan zuen artzain zoro batzuen artean formatutako hizkuntza zala. Ni aspaldian tentatuta nago pentsatzeko meteoro baten ondorioa garela. Meteoro bat jausi zala, eta arkakusuak eta perretxikuak eta ganera oinbika zebiltzan batzuk zertu zirela hizkuntza raro baten eta.... Holako zeozer izan behar du. Hori izango litzateke gaur esplikaziorik onena, gaurko sisteman onena izango litzateke.

Bueno, dana dala. Euskerak ere (*arbelean idazten du*) -DU. Baina pasatzen da latinak, beste hiru hizkuntza zaharren artean oso modernoa dan latinak, -TUM partizipioak egiteko erabili duela. Norbaitek asmatu zuen, asmatu behar eta beti be badaukagu asmatzaille ikaragarriak, asmatu zuen hau hemendik datorrela (*latinetik euskarako DU*). Behin batek diskutidu zidan gainera. *Vosotros como sois capaces de decir que la nieta ha parido a la abuela, yo me callo*. Eta hori da. Hiru hizkuntza zaharrak. Latinak nundik hartu zezakeen? Ba segurua aski sumerio, griego... hortik hartu zezakeen -TUM hau partizipioak egiteko. Eta orain sinestuta gaude partizipioak direla -TU amaitzen duten hitz guztiak.

Eta horrela dabilta gure hizkuntzalariak. Eta guk, ez dakit, ni eroa jaio naiz edo, ez dut ulertzen, baina partizipioak -a egiten du: “etorria da”, “apurtua dago”. Argi eta garbi erabiltzen dugu. Eta edozein arlotek, Pello Kirten eta sasoi bateko zerak burla egiten ziotenean, irri egiten

zitonean euskerari, esaten zuen: *mi mujer decir me ha hecho pues... Mujer mía decir me ha hecho pues que caer se ha hecho...* Garbi-garbi-garbi zertzen zuen infinitiboa erabiltzen dugula. Baina gaur ez. Eta hor gabiltza kentzen. Ia egunkarian ere ez dozue irakurriko ondo amaitutako infinitiborik. *Infinitivo del verbo tal*, euskeraz: *eros, ipin...* Zergatik ez ditugu danak kentzen? Lehen -DU, orain -I. Zergatik ez dugu -N ere kentzen? *ESAN ez, ESA*.

Horrela gabiltza. Galduta gabiltza. Barkatuko didazue baina nire eritxia hori da. Beste gezur haundi bat purismo kastrante bihurtu zaiguna. *Proveniente del latín, sufijo tardío*, ba kendu egingo dugu, eta zelako euskera garbia. Hauek dira purismoak, ez Arana-Goiriren zer batzuk; hauek, hauek dira. Ikaragarritzko kaltea egiten ari dira.

5.- Etimologia xelebreez eta uste okerrez

Egia esan behar da, ba gezur barregarriak be agertzen dirala. Astarloak ere egin zituen bere apologiak, eta etxean daukat liburu bat, lehentxo baten batek zertu zidan: “Zu, begiratu aber argitaratzea merezi duen”. Espainola da, uste dut, nik baino asko gehiago daki, hizkuntza arloan-eta planteamentu oso serioak egiten ditu. Hasten da proposamenak egiten eta Penintsula osoa eta Mediterraneo osoa, dana euskeratik dator. *Madrid, Toledo...* Danak. *El Paseo del Mancebo*, lehen anotatzen ibili naiz, Madrilen dagon kale bat. Hori “mantzar botz”: *La calle de las mujeres indolentes y alegres*. Eta holaxe liburu osoa! *Grezia, Turkia*, danak dira, euskeratik datoz. Baina gaurko euskeratik hartu eta. Jaio egin behar da. Espiritu Santua bera ez bada, ba ondo zertuta dago. Eta ezagutuko duzue beste bat, *mahatsa*. Gogoan daukat, Euskaltzaindiatik bialdu zidaten, bere teoriarekin nolako goiza pasatu nuen. Erlojuari begiratu eta, “gizon hau ondo egongo da, edo neu nago gaizki?” Mahatsarekin penintsula osoa. *Guadalajara*, zer arabeak-eta? “Mahats kiribiltsu orri mehea”, “mahats beltz ez dakit zer orri luzea” Dena, dena. Eta eginda dago.

Hor bien artean ibili beharra dago. Ezin daiteke guk asmatu eta esan. Baina ezin daitezke beste batzuk asmatutako egitzat dauden gezurrak ontzat hartu. Beraz, gaian sartuko gara. Bestela luzatu egingo zaigu. (*idazten*) Eta amaitzeko honekin, beste esaldi bat entzungo duzue sarritan: *El vasco no conoció el trigo, vivía del mijo*. Entzun duzue inoiz? Hori IPEsekoak-eta hitzaldietan nik entzuna daukat. *El vasco no conoció el trigo*.

6.- Esaera zahar eztabaidatua: *Eriok Eresan, Butroeko alabea Plentzian* (*Refranes y Sentencias*, 1596)¹

*Bagila, sei goseen bai ila*². Erderaz, orain lauhun urte idatzita: *Junio prenda muerta de los niños hambrientos*. Eta hori ez da euskalduna. *Bagila* bai. Hortik atera nuen nik hor norbait ibili

¹ Bittor Kapanagak artikulua idatzi zuen Euskaltzaindiko Euskera aldizkarian (1982, Euskera XXVIII, 159-168 o.) *Testu zahar baten bitxitasunak* tituluarekin. Okertzat ematen zuen liburu horrek esaera horri ematen dion erdal itzulpena. Hori dela eta, Mitxelenarekin eztabaida gogorra izan zuen.

² Antzinako beste itzulpen txar bat, Kapanagaren iritziz.

zala, ordurako egiten ziren astakeriak. *Junio, el niño hambriento ya es muerto (itzulpen zuzena)*. Lehendik gosez bazegoen, hori hilgarria zen. *Garila*, hau argi dago, ez?

Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian. Entzun duzue hori inoiz? Bai? *Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian*. Eta erderaz agertzen da liburu horretan, laurehun urte datorren urtean egin zala: *El tártago mató a la hija de Butrón en Plencia*. *Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian*. Nik irakurri nuenetik, hau ez da horrela! Nahiz eta laurehun urteko liburu batean agertuko da, eta horrela agertzen da, hori ez da horrela! Eta esaera horretantxe basaturik izan da euskerari buruzko azken urtetako filosofiarik garrantzitsuenak. *El euskera ha evolucionado en quinientas años como cualquier romance. Por tanto, el euskera de hace 500 años nos sería irreconocible*. Eta hori guretzat ikaragarritzko gezur bat da. Eta Lafont eta Mitxelena horretan oinarritu ziren. Horregatik lantxo bat egin nuen, eta gaur gehienak ontzat ematen dute. Hor okerdura bat zegoen. Batetik *tártago* landara bat da. *El tártago mató... Por evitar la redundancia de decir 'la muerte le mató'*. Neretzako hori hartu zuenak ez zuen ulertzen, ez zuen ulertzen, eta orduan ipini zion berak nahi izan zuena. Eta hola pilo bat dagoz.

Eta zer zen? Ba neretzako *erioak* mendebaldean *manantial*. *Erio* = *manantial*. Hori txikitik ikasi nuen. Eta gero Azkuek bere hiztegian esaten du: *Eriok eresan*. *Erio sin -a*; *erio* = *muerte, sin -a*. *Erioak* ez zan *la muerte* guretzako. [...] Kontraposizino bat esaten dute euskal esaera zaharrak, esate baterako: *Artzaina artaldean, etxeoandrea sukaldean*. Hor holako zerbait esaten zan. Edo *Elorrión buzkantza, Durangon tronpia*. Kontraposizinoak. Eta hor kontraposizino bat dago: *Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian*. Hor neretzako argi dago. Beraz *Erioak Eresan*, zer? *Manantiales*. Non? Eresan. Eresa Mendia da Euskal Herrian erreka gehien sortzen duena, erioz betea. *Manantiales en el Ereza y la hija de Butrón en Plencia*. Noizkoa ote zan? Ba hori XII. mendekoa-XI.ekoa, esaera hori. Zergatik? Ba Plentzia zelako oinaztarren gotorlekua. Eta Plentzian buruzagiak ziren Butroetarrek. Beraz, butroetarren alaba bat Plentzian erreginaren parekoa izango zan. Baina hil egin zuela? *Erioak eresan, Butroeko alabea Plentzian*? Eresan = *mató* egin eta ikaragarritzko zer bat. Eta bueno, ni baino jakintsuagoak dira, baina. Nire ustez ez.

7.- Euskaldunen antzinako erlijioaz. EGU. Asteko egunak. EGUENA eta ORTZEGUNA

Bueno, horregaz amaitu egingo dugu eta antzina sakoneko erlijioa aztertuko dugu. Egutegian zer daukagu? Eta egutegia oso inportantea da. Hizkuntza batek gehien mamitzen duen zera egutegia izaten da. Eta zer daukagu? Egun-izenak, esate baterako (*arbelean idazten du*). Hemendik sortu da uste oker bat, euskaldunak hiru egunetako astea zutela. Hau Barandiaranekin erabili nuen, eta ez dut uste. Eta gero esplikatu nion nerea eta ontzat eman zuen, bai. Berak hori uste zuela. Hemen daukagu hiru jainko-izenaren ondorioz sortutako izenak, beste hiru lanuzteari lotutakoak; eta gero, hau ezagutzen duzue, *egubakotx*? Hemen inguruan erabilia da. Hemen mezu argi bat dago. Zentrua hau da: EGU. "Egu-aste" (-n hori nik uste itsatsia dala), eta "egu-bako". Zer esan nahi digu horrek? Hiru eguneko astearen ustea gaindituz, hori ematen du lehenengo begiratzen duenak, sakondu barik begiratzen duenak. Baina hau da zentroa: *egu*. Egunik zaharrena ere hau izango da, *egu*.

Barkatu euskera batuan ikasi duzuenok, esango duzue: “hau nundik dabil?”. Gero agertzen da ORTZI ere. Hortik *ortzegun* (ostegun) eta *ortziral* (ostiral). Indar gutxirekin baina agertzen da hori ere. Behatu nolako mezua daukagun hemen. BAT: izena hau, LAURENBAT, eta horrela agertzen da, testu zaharretan *laurenbat* da, ez *larunbat*. Eta Mitxelenak esaten zuen: *una palabra sin sentido, porque no es cuarta parte de nada ni cuarto día... Osea que no tiene sentido*. Ez zion aurkitu. Ikaragarritzko sentidua dauka. Begira: euskeraz hilabetea ilargiarekin lotuta badago, eta badirudi, ez? Ilargiaren zikloa zenbat egun dira? Hogetazortzi. Lauren bat egiten dute zazpik, ez? Beraz *laurenbat* eguna, hau zazpigarrena zan nunbait kristianismoa etorri arte. Badakigu kristianismoaren karakteristikarik zerena izan dala alde guztietan, kultura guztietara heldu dana, zazpigarrena jainkoaren eguna: *domenica*. Domeka, hemen ere badaukagu. Euskeraz *laurenbat* zan noizbait, kristianismoa baino askoz lehenago baina noizbait beste guztiari gainean ezarritako bat. Zazpigarren bat, asmatutako bat. Euskal kultura zahar batean asmatutako eguna. *Lauren bat* eguna. *El día del cuarto* edo izango zan. Beraz zaharrenak hauek dira.

Hor argi eta garbi dago: EGU jainkoaren zera danen gainetik. Garai batean, ezin dugu esan orain hamar mila urte ala hamabi mila urte, ez dakigu, garai batean hori gain-gainean zegoen. Hori ezin da ukatu. Eta ez hau bakarrik: *eguberri*, *ekain* (“egu-gain”). Orain *junio* erabiltzen da baina ekaina ez da *junio*, ekaina da Sanjoanak. Eguberri ez da *diciembre*, Eguberriak dira. Egu-gain = ekain. Egu-gaitz = ekaitz. Eta *egu* dago alde guztietan, gure izenean ere bai. Euskaldunok geure buruari ematen diogun izenean ere neretzako hori ageri da. Herri zahar guztiak beren lehengoaren ondorioak dira, arloteena eta lapurrena izanda ere, jainkoaren ondorengoak. [...]

Gero zenbat ohituretan sartu, honezaz gainera. Ba jai egunean euskaldunak beti haragia jan duela. Hori baserrian, irakurri baduzue ezer, baserriarrek jai egunetan haragia, aste guztian ez. Jai egunetan haragi errea. Eta jai eguna hau zan (EGUENA) kristianismoa etorri arte. Bistan da kristianismoak egin zuela berri bat sartu: *domenica*, *domingo*. Orduan hau atzeratu zan. Baina *sabbat* ere zazpigarrena izan zen. Orduan *domenica*-k *sabbat* atzera pasatu arazi zuen. Hemen ere gauza bera, eta beste kultura batzuetan berdina pasatu zen. Geratu zaizkigu mendebaldean hauek (*arbelean*). Gipuzkoa eta Iparraldean... (*arbelean*).

8.- Gaurko Euskal Herria eta euskera, antzinako atzerakadaren ondorioa

Hortik beste teoria bat ateratzen da: euskalduna, gaurko euskal kultura ez zela hemen (gorpuztu), bizkaiera eta gipuzkera bezelako ezberdintasunak ez zirela hemen gertatu. Replegatutako herrialde bat. Hau Euskal Herria izango zela? Bai, Euskal herriaren basoak. Noizbait replegatu zirela, boladaka replegatu zirela. Jainko-izena ezberdina zerabilela. Aditzaren plurala ia errotik ezberdindua zegoela. Eta hori ez da gertatzen mendiko hamar mila personako zer batzutan. Euskeraren urratsik garrantzitsuenak beste nunbaiten gertatu ziren. Hemen replegatuta irau . Euskerak irau egin du. Eta onerako izango al da iraute hori? Hori da euskeraren milagroa, irau, bizirik irau duela. [...]

9.- BARIKUA eta LAURENBATA

Argi eta garbi ikusten da hau dena heredatu egin dugula, hartu egin dugula. Baina hemen mezu grabe bat dago. Gero hau sakonduz ba *egubakotx-bariku, biharamun...* Begiratu nolako siniskerak irauten duen; oraintxe eta oraintxe jausten ari dana. Barikuan ez zen zertu beharrik, ez zegoen ez ezkontzerik, ez bidaia bat hasterik, ez ardiak larraz aldatzerik, erleari ezirik ateratzerik. Barikuan ez zen lanik egin behar, eta hori nik ezagutu egin dut. Gaur ere badaude. Lehengunean batek esan zidan: “ bai-bai, gaur ere badaude ostiralez oilokari arrautzarik ezarriko ez diona. Ez, ez, hori ezina da”. Barikuak bazeukan holako aparteko iluntasun bat: “hilen eguna”. Horregatik astelehenari *ilena* esaten zioten Uribe aldean, *neskeneguna* larunbatari moduan. Klaro, neskeneguna zen hau, nik hori gaztetan ezagutu nuen, nesken eguna *eguastena* da. Hau (eguna) gizonen eguna, hau zan egun haundia, eta hau (barikua) hilen eguna. Baina sagraua gaur arte barikua. Orain badirudi sorginen eguna eta hor geratu dala, barikua.

Horrek zer esan nahi du? Karga hori oraintxe arte bizi izan dala, lehengo erlijioaren karga hori oraintxe arte bizi izan dala. *Laurenbat* hau teknikoa da, noizbait asmatua, baina antzinan. Besteen aldean askoz berriagoa. Hoiek mila urteak izango dituzte, larunbatak ere bai, mila batzuk bai. Baina askoz berriagoa da. Kristianismoak desbankatu zuen. Hori argi dago.

Beraz, erlijio horren zera zer izan da? Ba nik uste dut euskal erlijioa jatorriz, hasiera batetako hizkuntza bera bezela, datorkigula naturalezaren inguruan. Baina ez gaur pentsatzen dan eta bezela ama lurrak eta... Elokubrazinoak egiteko astirik ez zeukaten. Horrek gaur egiten ditugu: *es que creían que esto y esto y tal...* Erderaz eta elokubratzen dugu. Logika hutsa ageri zaigu alde guztietan, logika, bai hizkuntzari dagokionez, bai ohiturei dagokionez, eta gauza guztietan logika bat ageri da. [...]

10.- UGAZAMAK eta UGAZABAK

Hor agiri zaigu UR, lehen esan dugu eguzkiaren izena izango zala seguru aski. AR eta UR, arra eta emea dira. UETZA zer dan badakizue? *Uetza* da emakumearen esnea. Eta hori erabilten da, bizkaiera aldeko herri askotan eta. Ni akordatzen naiz, behin amari esan nion: “Ama, ez dakit noren ama hil da”. Eta esan zidan: “ez, hori ez da bere ama izan, hori *UEZ-AMA* izan da”. “Uez-ama? Eta hori zer da?”. “Ba horri ama hil zitzaion jaiotzean, eta beste horrek eman zion bularra. Orduan hori *uez-ama* izan da”. Eta *UEZ-ANAIK*, *UEZ-ALABA...* *Uez-alabak* esan nahi du bere ama izan barik hazten duena. Horrek esan nahi du gizarte horretan bazegoela, ez zegoela beste lotura modurik odolekua baino, baina esnearena ere bai. Emakume asko hiltzen zala eta ume hoiek hazten zituztela. Beraz, *uez-ama*. Eta begiratu nundik nora gaurko egunean: Uez-ama = *patrón*. Ez da besterik *madre de leche* baino. Esprikatuiozu. Eta hori da. ASABA, OSABA, IZEBABA... -ABA hori da “ama” parentesko guztien zeretan. Eta Madrilen bizi dan euskaldun batek esaten zidan: “hortxe daukazu hitzen burua. Alemanak ibili dira hor -ba misteriotso hori deskubritu ezinik. Berrehun urtean alemanak horren atzean bazebiltzan, Barh eta”. Nik ez nekien. Baina AS-ABA, AR-EBA, IL-OBA, AL-ABA. Euskal zeretik, eta hor zegoen kako hori. Hortxe daukazu, behatu nundik argitu duzun. Baina azkenean *uezaba*. Eta -aba hori da *madre; madre de leche* eta *patrón*.

Hortik beharko litzateke estudiatu semitar hizkuntzen zera. Badakizue, *aba* arabez “aita” da; Hebreoz *aba* “aita” da. Horiek ere arrastre bat izan zuten matriarkadotik patriarkadora? Bidean hitza bera arrastratu zuten euskeran egin dugun bezela? Hori arrastre bat da. *Uezaba*, “madre de leche”. Eta holako mezu pila bat daukagu.

11.- ARTUR erregea. Georgiarrak KARTURI

AR eta Ur esan dugu hori dala. Lehengo baten batekin diskutitzen: *Si tú le das la vuelta a la cosa y me dices que dios creó al hombre a su imagen y semejanza...* Gizakiak ikusten zuen *arra* eta *urra*, *arra* eta *emea* zirela, orduan jainkoak zergatik ez? Eta bikote bat [adoratu?] bazuen, ARTUR izango zen? Hau espekulazioa da, e!!! Baina bere basea daukana. Frantses baten artikulua irakurri nuen lehentxo baten: *Arthur no ha sido ningún rey, Arthur es el nombre de un antiquísimo dios que ha quedado ahí fosilizado y que ha adquirido el nombre del rey Arturo*. Beraz, hori izango litzateke.

Entzulearen galdera: Hor daukagu *Adur*, ezta?

Adur? *Adur* bai baina beste sentido batekin. Pasatzen dana da fonema horiek gutxi dirala. Ez da euskerako fenomeno bakarririk. Beste hizkuntza zaharretako fenomeno ere bada. Eta gure hizkuntzalariak egunen batean lotsa guztiak bota, harrokeria guztiak enterratu eta bide horretatik jo beharko dute. *Adur* ba, ez da erreza, kontuz ibili behar da, neu behintzat kontuz ibiltzen naiz eta hala eta guzti ere... Esate baterako, lehengo batean euskalzain jaun bati esan nion: “Zu, zer diote Kartarrek?”. “Ze Kartar?”. “Zure lagunak. Bueno, nik ez dakit georgieraz eta zuk ikasi duzu, badakizu georgieraz, baina parkatuko didazu”. Eta idatzi nion: (*arbelean idazten du: ‘espan-uri’*). “Bai, bai, *español*. Georgieraz horrela idazten da *español*. Eta esan nion, “Eta guk?” (*arbelean idazten du, ‘españ-ar’*); *-ar* hori gurea da eta *-ur* hori (georgiarrena) gure *-ar*. Beraz, itxoin puxka bat, zure lagunak ‘*Karturi*’ dira, ez ‘*georgiarrak*’, hori kanpotik emandako izena da, eurak dira *kartri*, hizkuntza da *Karturi*. Eta georgiarren izena beraientzat da [...]. Esan nion, *kartri*, *karturi* = *kartarra*. Eta geratu zen, nik ez dakit georgiarrek badakiten hau, baina berak: “Bai, bai, bai, horrela da”. *Kar* hori zer den estudiatu behar duzue.

Nik behin hola galdetu nion georgiar bati *Kar* zer zen. Eta esan zidan, ba denporen hasierako patriarka bat, euren jatorriko zer bat, eta esan nuen, ba: “Jainkoa”. Eta ez nuen hori ateratzerik izan, gainera ruso bat zegoen eta Jainkoa aipatu eta bueno... (*barreak*). Baina hiztegi bat eskuratu nuen aber *ona* nola esaten duten georgieraz? Eta esaten dute *karri*. Beraz, “jainkoa”, “ona”, “gu...”, hola ibiltzen da. Eta gu *egu* familiakoak gara, eta haiek *kar* familiakoak dira. *Kar* hori euskeran *gar* bera da.

12.- Haritza, urkia eta lizarra, euskaldunen hiru arbola sakratuak

Behin Joxe Migelek idatzi zuen LIZARRA. Baina esan nion: “don Joxe Migel, hori lizarrarena zergatik da? Ba ez nago guttiz ados”. “Zuk zer?”. Nik ezagutu dudak jakintsurik ezjakinena don Jose Migel izan da. Berak ez zekien ezer. Hau ez dakigu, hori ez dakigu, bestia ez dakigu. Eta hori esan nionean ba: “Eta zuretzat zer?”. “Ba neretzako BASALIZARRA. Eske *basa*, *basarana*

badakizue zer dan, ez? Baina *arana*; arana egon ez balitz ez zegoen basaranik. Orduan bertako... replegau egiten dira hoiek ere, *basabehia* esaten gendun guk behi gorriari, bertako *erribehia*. Gure aurretik esaten zien *erriganaua*, *erribehiak*. Baina gero basabehiak. Beraz basalizarra da lizarra bezelako berdin-berdin-berdina zuhaitzez. Nik hiru ezagutu nituen gazte denporan eta bueno. Behin lan bat egiten hasi nintzen, hoiek zertuko zirala, guztiz galduko zirala. Orain badaude, gure herri inguruan badaude hogeit mila bai. Usapalak eta, pinuaren zerez ikaragarri zertu da basalizarra. Baina ez da lizarraren familiakoa ere, zuhaitza da berdin-berdina baina fruitua dauka oso ezberdina. Eta esplikatzen nion. Berak: 'zergatik?'. Eta euskalduna edanzalia izan dalako beti eta horrekin edaria egin izan duelako. Bueno, kontatu nion zer batzuk eta handik hilabetera gutun batean esan zidan: "Aizu Bitor, arrazoia duzulakoan nago, basalizarra da sakratua eta ez lizarra". Berak bere liburu guztietan idatzirik dauka: *El roble y el fresno son sagrados y no hay que bendecirlos porque por naturaleza están benditos*. Eta hirugarren bat urkia ere izango litzake.

Behin egin nuen holako lantxo bat: *Hiru zuhaitzen kultura*. HARITZA: herriaren izatea, demokrazia, justizia..., zer guztiak. BASALIZARRA: edaria eta festa. Eta URKIA: herrien arteko mugak eta bakea. *Urki*, hor nun agertzen dan *ur*. Urkia badakizue gaur ere muga-arbola da. Zuek baduzue lurraldetxo bat edo zer bat, eta ez badago mugarririk eta, baina urki bat baldin badago han mugarra dago. Niri gertatu zait norbaitek zertu, eta abogatuak: *Aquí hay un abedul, luego es un mojón sagrado*. Urkia. Zergatik? Ba mendietan-eta urrunera ikusi egiten delako. Urkiak azala zuria dauka, eta beste zuhaitzetatik ezberdina da. Muga-arbola. Seguruenetik Malatoa urkia izango zan. Azkenengokoak ez, Araban azkenengoko malatoen zera dagoenetik beste zuhaitz mota batzuk ziren baina ordurako galdua egongo zen. Hor Aiala aldean ere ezagutu ziran *el Árbol Malato*. Hori da gaur sinbolotzat euskaldunak esportatu dezakegun zer bat, sinbolo bat. Herrien arteko mugen sakratutasuna.

Gaur apologiak egiten direnean, zuk esaten baduzu (modu askotako apologiak daude), guk gaur esaten badugu hemen herri batek bere kulturari atxekirik bizitzeko eskubidea duela, *apología del...*, ez dakigu *terrorismo* izango dan ala... Baina Madrilgo errege haundia hasten bada gaztelaniak Filipinan eta izan duen..., *apología del imperio* egiten ari da! Eta hori egunero egiten da, eta inork ez du esaten apologia denik. Eta Txetxenian berdina gertatzen da. *Apología del imperio* libre da. Baina *apología del pueblo*... Klaro, *imperio* eta *pueblo* ezin badira..., hor dago gatazka. Niretzat argi dago. Beraz, hor ere zeren apologia egiten dugun.

13.- Noiz sartu zen kristautasuna Euskal Herrian? Arabiarren erasoak; Saltan eta Mayuak

Bueno, orain ikusiko ditugu beranduagoko erlijio aztarnak. Honetan asko daukagu, material asko dago. Ze garaitan sartuko zen kristianismoa Euskal Herrian? Batzuk esaten dute Kristo baino lehenago (*barreak*). Bai, bai, hori ez da... *Antes de que Cristo naciera los vascos ya adoraban la cruz. El lauburu*. Bueno. Beste batzuek esaten dute lehenengo mendean, bigarrenean... Gehientsuenak hamargarrenean hasita. Zer gertatu da? Hemen material asko daukagu. Batetik, lehenengo-bigarren mendean Iruñan edo Arabako Iruñan erromatarrak zeuden *oppidum*-etan eta kristianismoa izango zela? Bai. Nahiz eta erromatarrak ofizialki kristauak ez izan, ia kristauz josita zeuden azpitik. Bizkai, Araba (Araba zati batzuk), Gipuzkoa, Pirinio aldeak noiz kristautu ziren? Barandiaranek argi esaten du: Durango aldean mila eta

laurehungarren urtean oraindik lehengo erlijioa bizirik zegoela. Hori belarri hauxekin entzundakoa da. Mila eta laurehungarren urtean.

Argi dago ez dutela idatzi ez frantsesek eta ez espainolek, ez kastillarrak horri buruz. Hor zerbait isil-isilik pasatu beharrekoa egon da. Ez dute idatzi, baina kronikatxoak dauzkagu, eta batez ere arabiarren kronikak³. Ibn Hayyan-ek idatzi zituen, orain Arjelian edo daude kronika hoiek, *Alava Medieval* liburuan agertzen dira, argi eta garbi esaten du 816. urtean arabiarrek eraso egin zutela Pancorboko... Orduan arrateetan zeukaten defenza euskaldunek, Pancorboko arrateetan, eta irabazi egin zutela. Hil zituztela esaten du:

García el tío del rey... (klaro, erregea Asturiaskoa zen, eta izatez arabarra, euskalduna. Don García zan errege horren osaba Arabakoa) . *Murió también Sancho, el mejor caballero de Pamplona, y Saltán, el mejor caballero de los mayus*. 816. urtean. MAYU ziran kristauak ez ziran euskaldunak arabiarren hizkuntzan: *Los adoradores del fuego*. Beraz, SALTÁN zan euskaldun kristautu gabeen zaldunik onena. *Zaltun* izango zen segururik asko. Saltan deitzen dio. *Zaltun = zalduna*.

825. urtean esaten du: *Nuestras huestes atacaron Al-alaba, rompieron las defensas y entraron en la llanada...* (Ze Araban ez ziren bizi izan, Nafarroan bai baina Araban ez ziren bizi izan arabiarrek)... *avanzaron en la llanura y llegaron hasta la montaña sagrada de los mayus donde veneran el fuego sagrado*.

14.- ARA erroa, misterio askoren giltzarria

Lehengoan baten batek esaten zidan ba norbaitek idatzi zuela Aizgorri eta Gorbea bitartean izango zela mendi hori. Ni txikitan, eta hortik abiatu nahi dut, egun batean ARAMAIO, ARANGIO... Euskal Herrian dauden izenik harrigarrienak. Nahiz eta Aramaiona norbaitek idatzi zuen orain berrehun urte: *hé ahí la mesa buena: ara-mai-ona*. Hori idatzirik dago. Bueno, gezurrak-eta alde batera eta, *Aramaio*. -O hori lokatiboa da: Legutio, Otxandio... ARAMAIO. Hor dago misterioa. ARANGIO: eta orduan konturatu nintzan zahar batek esan zidala: "Mendi hori ehun urtian sutan egon ei zan". Nik ez dakit nola begiratuko nion, berak esan zidan: "Hori bene-benetan gure gurasuak esaten zuten, bene-benetan!". Gero konturatu nintzan, klaro, sutan egon zala mendia. Mendian sua egon zala, edo mendia sutan egon dala, ñabardura bat

³ Ibn Hayyan-en testuaren itzulpen hau aurkitu dugu Interneten:

"En este año fué la campaña del hayib 'Abd al-Karím ibn 'Abd al-Wshid ibn Mugít con la aceifa contra el enemigo de Dios Balask al-Yalasql, señor de Pamplona. Este había pedido ayuda por al-Ándalus contra los musulmanes y se le habían reunido los contingentes cristianos. (El emir) envió al hayib 'Abd al-Karim en contra suya, al frente del ejército de los musulimes, y les presentó batalla durante trece días, combatiéndoles sin tregua, hasta que los enemigos de Dios quedaron desbaratados y emprendieron la huida. Murieron muchos, entre ellos Garsiya ibn Lubb, hijo de la hermana de Barmud, el tío materno de Idfüns Sanyo, el mejor caballero de Pamplona; Saltan, el mejor caballero de los Mayus y otros. (Los demás) se defendieron de los musulmanes tras de ríos abruptos y barrancos, a que se acogieron obstruyendo sus accesos con maderos y fosos, que los musulmanes no pudieron franquear, y, en vista de su impotencia, emprendieron regreso desde las tierras cristianas a comienzos del dü-l-qa' da de ese año". (Trad. GARCÍA GÓMEZ, Al-Ándalus, XIX, pág. 297).

baino ez dago. Beraz, mendi horretan sua egon zan. Beste batzuk hirurehun urtean eta esaten dute. Zuk ikusten duzu dana atxa, urtean..., aurten ez baina urtean zortzi-hamar bider dena elurrak estaltzen du. Beraz, ehun urtean sutan ezin da egon. Eta gero behin artzain bati entzun nion: “Bai, hor kastilloko puntan eta...”. “Zer kastillo?”. “Bai, hor puntan kastillo bat egon zala eta gero horko harriak Aramaiora eraman zituzten”, eta ez dakit zer. Joan nintzan ilobarekin. Eta Santikurutz hor dago, han goian ermita.

Klaro, Barandiaranek arrazoi zuen, Euskal Herriko ermitarik gehienak, hala ere Santikurutz eta San Juan direnak, lehengo erlijio gurtetegiak dira. Eta hori don Jose Migelek [berretsi] zidan: “Bai, bai, gehienak”. Badirudi holako zer batekin sustutuzinoa egin zutela, kategoria batekin. Santo Kristo, Santikurutz, hori da inportanteenak, gero San Juan. Eta orain egingo balitz estudio bat, benetan harritu egingo ginatke, harritu. Ni gogoratzen naiz orain dala urte pilatxo bat Gerediagako... Gerediaga badakizue zer dan. Batzar batean, Garaiko sekretarioa zan eta da Gerediagako sekretarioa. Eta bilera amaituta eta esan zidan: “Zu, Bittor, gauza interesgarri bat kontatu behar dizut. Guk obrak egin ditugu San Juan ermitan eta aurkikuntza batzuk egin ditugu. Lehenengo eskonbrotzat botata harri arraro batzuk zuloekin eta, eta inskriizioak eta”. “Inskriizio latinoak?”. Eta “bai”. “Bueno, antzinakoa dala San Juan hori. Baina besterik ez duzue aurkitu?”. “Beste zer, esaterako?” esan zidan. “Holako losa haundiren bat edo?” .“Bai, bai, bai. Baina askoz beherago”. “Eta zer, botxo bat edo bazeukan?”. “Bai”. “Eta sua egindako arrastorik?”. “Bai, sua egindako arrastoak”. Ba hori zen *aran*. “Eta izena zer?”. “San Juan”. “Eta *aran* ez dok agertzen?”. “Bai, behetik doian errekoa *Aranerreka* da”. Hurrengo egunean telefonoz deitu zidan: “Aizu, ermittaren izena *Aran* da”. Bueno... Alde guztietan.

Don Jose Migelek kontatu zidan behin joan zala Orozkora; neskatila bat harri bihurtutako leienda. Zer gertatu zan? Eta neskatila behizain, ez dakit behiak ala ardiak ziran. Ganaduzain egon eta iluntzean etxera etorri zenean zenbait falta, zenbait buru. Eta aitak haserretu eta bialdu omen zuen bila. Eta tximistak eta ez dakit zertzuk zirala, eta neska gehiago ez zela agertu. Joan omen ziren hurrengo egunetan bila, eta harri bihurtuta. Eta bueno, joan zela bera, eta harri bat, esaten zidan; hor dago leienda. “Urbionen nengoela –esaten zuen berak-, etorri zitzaizkidan hiru-lau mutil: “*Oiga, nos han dicho que a usted le gustan las leyendas antiguas. Pues en nuestro pueblo hay una. “De qué se trata?”*. Gauza bera kontatzen hasi zirela. “*Ya iré*”. Joan omen zan eta Pradilla herrian, Burgos eta Logroño tartean, mugan, Burgos partea. Eta bueno, harri bat, han ere ikusten zuen harri bat zala; baina leienda hori. Leienda berdin-berdina, esan zuen. “*Y como llamáis al paraje este?”*. “*Larrea (La Rea)*”. Berak esaten zuen, euskal zera agertzen da. Agurtu zituela eta bera han geratu zela. Berak esaten zuen: “Badakizu, ohitura txarrak ere hartuta izaten ditugu eta hasi nintzan goroldioa kentzen harriari. Odola ere hotzitu egin zitzaidan. Harriak azpian idatzita zeukan ARAN”. Non eta han. Orozkokoa ere *Araneko harria*. *Aran* agertzen da guzti-guztietan. [...] ARANE da.

Guzti-guztietan misterio hori dago. Zer dago hor azpian? Ba ARALAR ere hor daukagu, seguru asko beste mendi sakratu bat izango zana. ARANGIO izango zan seguru aski hasi itsasotik eta Errioxaraino bizi zan herrialde bat. Errioxatik ere ikusi egiten da. Beraz, arabeak ere, arabiarrak etorri ziran, su horren ondoraino etorri omen ziran. Leiendak hori diote, Legutiora heldu zirela, Otxandiora ez. Geroko espainiarren guduak ere hortxe izan ziran, Ibarbaltz paraje horretan. Eta garai hartako defentsa-lekuak, pasabide estuak. Hortik ateratzen dira historiako gauza asko eta asko. *Batalla de Tavira* nun izan zan, nahiz eta okerturik agertzen den.

Goazen ARAN horren misteriora. Gaur zer dakarkigu horrek? Hizkuntzan bertan begiratu zenbat hitz daukagun ARA horretatik sortutakoak: ARAUA, seguru aski erlijinoaren beraren izatea zen araua: *La Ley*. Horrela zen hebreotarrentzat ere, legea zen erlijioa. Seguraski hemen ere bai. ARAGIA; partitibo. ARAKIA; partitibo berdina. Orain urbanotuta gaude gehienak, baina *arabia* da egurra ez mehea ez sendoa, txondorrek egiteko erabilten dana, eta mendian su egin eta zerbait erre behar baduzu, arakiz egin behar da. ARAKEITU: begiratu hizkuntzaren mezua norainokoa izan daiteken, eta euskerarena norainokoa dugun. *Arakeitu* badakizue zer dan? Hitz zahar bat: *Sacrificar*. *Ara-gei-tu: hacer apto para el ara*. Norbaitek esango du: “*ara* latinetik dator”. Bai, bueno, -DU ere bai. Eta hiztegi bat hartzen baduzue, ez duzue irakurriko nik esan dudarik. *Arakeitu: voz arcaica* edo igual ez du ipiniko. *Preparar la carne, sacrificar*. Hori esan nahi du, *arageitu, arakeitu*. Eta erderaz ere *sacrificar* ez da *matar*. *Matar* bakarrik ez behintzat. Ze inork ez du esaten *sacrificar las ratas*. *Sacrificar* izaten dira bildotsa, txahalak, hegaztiak... *Sacri-ficar: hacerlo sagrado, volverlo sagrado*. Behatu, euskeraz berdin-bedina zegoen, badirudi kalkatutako dala: *arakeitu*. Euskerak holako ezusteko pila bat dauka. Pasatzen dana ez ditugula bilatzen. ARATA. Gaur *pato* nola esaten duzue? *Ahatea*, ez? Araban *arata* esaten da *pato silvestre*. (Entzulea: ‘*Bergaran be bai*’). Hori da hitz zaharra, *arata*. *Arata, agata, aata...* Azkenean H, G, horrek danak R baten ondorioa izaten dira gehienetan; gehien-gehienetan. Eta ARAO: *Imprecación*, Jainkoari indarrez botatako zer bat, *arao*. ARAXE: badakizue zer dan *araxea*? Txahala, *ternero*. Beraz, erabilten ziren. Hor denetan ageri da erlijio kutsuzko zerak direla. ARATIN; *aratin* badakizue zer dan, ez? *Aratin zegoen*; ba sorbaldaz behera, tripaz gora norbait etzanda badago, hilda badago, *aratin*. Badirudi horrek *aratin* zerikusirik duela nola erretzen zuten bildotsa: hazkazgora.

15.- ARREN eta URREN

Baina hitz pila bat euskerak badu. Eta gero ARREN eta URREN, hoiek ere ba *bederatziurrena, hiruurrena*, esaten da orain. Gogoratzen naiz, lurretan izendatu ninduten urte batean epaimahaiko hango ermitei buruz lan batzuk egingo zituztela, eta batian irakurri nuen: “Hemen izaten da ARREN MEZA maiatzaren hiruan edo. Beste fetxa zer bat da. Eta *arren meza: la misa de los gusanos*. Geratu nintzen..., eta gero esan nion, zu, zer? “Bai, bai, hori uste dugu, *la misa de los gusanos* dala, arrak lurrarentzat onak diralako (berriro elokubrazinoak), arrak lurrarentzat ona diralako”. Hori *la misa de imploración* da. *Arren* = eskaria. A, bai. Apaizak ez dira konturatu horregaz? *Arren-meza = misa de imploración*, eta hori da kosetxa eskatzeko, maiatzeko ... Hitza geratu eta esanahia... *Arren meza: misa de los gusanos*. Eta holako gauza pila bat daukagu.

URREN be berdin, *bederatziurrena* eta, zer da hori?, *lo más cercano*? Hor berriro agertzen zaigu AR eta UR. Arra eta emea, jainkoari... Hor misterio hori dago.

16.- Aratusteak. Txitxiburduntzi, erlijio zaharraren arrastoa

Gero hemen ditugu, oraintxe laster ganera, ARATUSTEAK. *Inauteri, inaute, aratuste...* Zer dira jai hoiek? Kristianismoak ezer gutxi utzi zuen estali gabe edo hartu gabe, baina jai hori bai. Nik

uste Euskal Herria sei urte arotan sartuta zegoela hemengo kultura: *negu lehena, negua, negu ondoa, udaberria, uda*, eta *udagoiena* edo *udazkena*. Sei urte aro eta urte aro bakoitxak bazuela bere jai-arot bat. Euskalduna oso sinesle gogorra izan da bere erlijioan. Ikusten dugu katolizismoan ere, nahiz eta onartu beharrekoa dan kristianismoa Euskal Herriaren barruan epe labur-laburreko gauza bat baino ez dala. Kristianismoa guztiz Euskal herrian jabeturik oso epe labur-laburreko azaldi bat da. Oraindik lehengoa guztiz hiltzeke, eta badirudi orain gainbeheraka doala. Epe laburrekoa izan da. Hori zientifikoki onartu beharra dago.

Zer esan dezakegu honetaz? *Aratusteak* (mendebaldeko izena hori da) zer esaten digu? *Aratoste* be esaten dute eta. Nere ustez hori da, bazegoela garai haretan ere *arat-uzte* garai bat. Eta hori idazle filosofoek esaten dute, hori ez dala erlijio oinarrizko gauza bat, *Cuaresma*, ez, hori medizinario zer bat zela, udaberrian berrogei egunetan barau egitea neguan pilatutako toxinak-eta garbitzeko. Badirudi euskal kulturaren bazegoela holako zerbait. *Aratuzte*. Aragi uzte? Beharbada ez, *aragi* bera ere partitiboa da, sorta horretan sartutako hitza da. OKELA zan zaharra Euskal Herrian. *Concepto carne*= okela. ARAGIA zen “ara” egindakoa [...].

*Ofició Una misa cantada y todo ello se hace con la limosna que dan los dichos cofrades, que está tasada, y hay dos mayordomos en cada una de ellas que tienen cuenta de decir las dichas misas y de cobrar la dicha limosna. Y en las cuatro cofradías, la cuarta la de Izaskun, los cofrades que quieren van en día señalado de entreaño a tomar una comida a su coste y en ella tomar a los cofrades cuentas y a los mayordomos con cargo y data. A Insausti le llama la atención la comida y escribe con mucha razón: el que fuese servida dentro de la ermita y el que en otras cofradías se llegara a sacrificar en su interiora la res destinada al banquete, induce a sospechar la supervivencia de ritos paganos. Y aunque se prescinde de tal hipótesis, no tan descabellada, es preciso destacar la influencia de esas comida de hermandad en el mantenimiento de las relaciones sociales dentro del auzo o batzarre.*⁴

Gero beste bat azaltzen da, Barandiaranen Zugarramurdiko zerari buruz: *La misma caverna tiene por el lado oriental otra entrada más amplia llamada Sorgiñen Leze. Aquí se celebra anualmente en el cuarto día de las fiestas patronales del pueblo, 15 de agosto, una ceremonia tradicional organizada por los viejos de la localidad para la cual dos de estos compran uno o dos carneros en la mañana de ese día, los matan dentro de la cueva y los asan sobre una hoguera que allí mismo encienden. Al mediodía se reúnen en el antro los viejos del pueblo, se reparten la carne asada y la comen con pan y vino. Cada uno paga lo que corresponde a escote. Después, trabándose por las manos o mediante los pañuelos forman entre todos una larga fila y salen de la caverna. Así van hasta llegar hasta delante de la casa cural donde danzan, y luego se dirigen a la plaza del pueblo.*

Gero hemen beste bat Garmendiak ere ekartzen duena: *Hilkizunetan ahari bizkor bat bizirik eliz barnean. Domini lesucristi entzun arte daukate eliz atalean, orduan sartzen oferarako (ofrenda), eskainia dutenean berehala atera, haragi egin, apaizentzat bazkaltzea. /Durante los funerales meten un ternero vivo en la iglesia, le tienen aguardando en el atrio hasta que se oiga el domine Jesucriste, que es cuando lo meten para la ofrenda. Cuando ya lo han ofrecido lo sacan enseguida y lo sacrifican para la comida de los curas. En su Compendio Historial de*

⁴ Juan Garmendia Larrañaga etnografoaren obretatik hartutako testuak direla uste dugu hau eta ondorengoak.

Guipuzcoa, Isasti nos dice que se hacen funerales con oblaciones de pan y cera. Además de esto, en algunas partes llevan carneros y terneras, y parecidas referencias podremos encontrar en Larramendi.

Argi geratzen dana da ukaezineko zera duela Euskal Herriko lehengo erlijioak; bizi-bizirik dagoela. Eta horren oinarria da ADARIA. Zuek Mariren zerak-eta irakurri dituzue, ez? Kursilloren bat egin ere bai. Mariren erlijioaren... Beste euskal mitologia daukaguna gehiena nahiko barregarria da. Mariren zera, zer da Mariren atributuak? Ona saritu, txarrak zigortu. Hor bistan dago jainkotasun bat dagoela. Eta zer opari egin behar zaio Mariri? Adari bat. Ze arraroa, ez? Adaria zan meza egiteko.

Gaur egun zer dago honetaz bizirik? Bazoazte Bizkai alde guztira, eta ez dakit noiz tokatuko dan, beste hamabost bat egun barru edo, BASAKOIPETSU edo BASARATOSTE EGUNA. Entzun duzue? TXITXIBURDUNTZI. Mendira joan, haragia erre, sua egin. Mendian sua egin behar da, eta gaurko egunean hor daude arazoak, haragia erre eta jan. Hor ez da egiten inolako orgiarik eta zerik. Eta gehien baten neskak izaten dira, neska-mutilak ere bai gaztetxoak, 14-15 urtekoak eta; horrek nahi izaten dute *txitxiburduntzi egitea*. Zer da hori? Ohitura horren, antzinako ohitura horren zer bat. Baina hori da euskal erlijioaren meza. Eta gaur egunean ere egin egiten da. Zergatik? Galdu duelako erlijio kutsua eta orduan ba ez diote ematen... Bestela erreko lituzkete. Durangoko zerak ekarri ditut, baina ez dugu irakurtzeko astirik. (*antolatzaileak: 'hamar minutu'*)

17.- Durangoko herejia, erlijio zaharraren agerpena 1444an

Badakizue Durangon herejia bat izan zala. 1444. urtean erre zituzten Durangoko plazan hamabi emakume eta neskato bat. Hortaz lotsatu egin izan dira beti durangoarrak. Agiri guztiak... Ez da orain mila urtetako gauza. Epaituak izan ziren, eta agiriak ere bazeuden, baina frantsesak zetoze eta ez dakit zer, lotsagarria zela, eta alkate batek erre egin zituela. Baina horretaz Rafael Castellanak *El misterio de Bizkaia* liburuan dino, orduko dokumentuak dira:

El rey, que estaba en Valladolid, envió dos alguaciles con harta gente y recaudosy poderes bastantes para la prisión de los que habían caído en este error, y los tales llevados a Valladolid parte, y parte a Santo Domingo de la Calzada. (Crónica Real). A los que quisieron tornar a buena recordación, se reconciliaron a la fe con el obispo de Calahorra, mandóles facer merced. Muchos fueron puestos a cuestión de tormento. Algunos de los que fueron traídos a Valladolid obstinados en la herejía fueron ende quemados e muchos mas fueron traídos a Santo Domingo de la Calzada donde así mesmo les quemaron. (Erre egiten zituzten txitxiburduntzi egiteagatik). De tal manera que fueron muertos e quemados mas de ciento homes e mujeres e mozas. Durangon tradizioak dio hamahiru zirela.

Baina begiratu Burgosko Kabildoan zer idazten zuten:

Así también en estos días algunos de la región montañosa cercana a nosotros (se escribe desde Burgos) los que tomando nuevamente opiniones antiquísimas y conceptos erróneos de la antigua paganidad, e intentando defenderlos con ánimo pertinaz como también negando reverencia al sacratísimo cuerpo de Nuestro Señor oculto en el devotísimo y admirable

sacramento y en la Santa Cruz, y no digamos adorarle sino que ni querían mirarle, declarados por su diocesano herejes pertinaces e incorregibles, según la severidad de las leyes y la potestad secular, fueron consumidos por el fuego legítimo. Y tan pertinaces eran que se cuenta que cierta niña con aquel error a quien los jueces querían perdonarla por su tierna edad y debilidad del sexo, y para que viendo lo terrible del fuego con que se castigaba a sus correligionarios, aterrada por esto se convirtiera, la condujeron a ver el suplicio de los suyos, y que ella evadiéndose de las manos de los que la tenían, con ímpetu espontáneo y caprichosamente se tiró a la hoguera y al instante fue consumida por la aspereza del fuego.

Durangon gertatutakoak 1444. urtean. Hoiak argi diote *ideas milenarias sobre el paganismo*. Ez zen herejia bat izan. Alonso Mella. Bai, gero hori esan da, Erromatik etorri zala. Anaia bat zeukan obispo Badajozen. Eta Mella. Ez ote zuten abizena okertu? Durango aldeko abizenak dira, Mella eta Mella beti izan dira durangarrak. Eta Mallabia eta Mallagarai. Beraz, Mella hor egongo da nonbait Mallabia aldean, toponimo bat da. Eta badirudi garai horretan Europa guztian kristianismoa nahikoa bihurrituta, kolokan zegoela. Eta behintzat hori durangoar bat zan, bistan dago. Honek ere nahiko esaten du, ez zala Italiakoa, durangoar bat baino. Gogoratzen zan bere herrian beste erlijino bat zegoela eta... Hori azkenengoko zera izan zan. Gero ez, gero Kristo baino lehenagotik gurutzea gurtu zutela. Eta bueno, horretan bizi izan gara.

Hau da euskal erlijioaz gaur izan daitekeenik zerik dokumentauena, eta lekukotasunak daude pila bat. Adari errea, bildots errea, *el sacrificio del cordero divino* hori zan. Eta gaur egun ere egiten dala! Txixiburduntzi horixe bera dala! Harrigarria da. Bai, burugorrrak ere bagara euskaldunok.

18.- Solasaldia

Galdera: gaur egunean baserri-atarietan jartzen dan lizar adar bat, badauka zerikusirik honekin guztiarekin?

Bai, bai. Lizarra sakratua da, aretxak ere balio du; eta ez hori bakarrik. Jaietan ipintzen dan kukaña. Hori, ni gogoratzen naiz Berrizen eta hor ohitura handia. Eta nire aitonaren etxean ipintzen zuten baserri haundia zalako, baina ia zera galduta. Pinu luze bati azala kendu, ereinotz txorta bat puntan ipini... Baina hori behin Otxandion zahar batek esan zidan: "Ez du balio; aretxa edo lizarra, besteak ez dute balio". Hori izan behar da. Adaria zan jan eta zertzeko, ospakizunen zera. Baina arbola, lehen esan dugun moduan, neretzako hiru arbola sakratuak ziran haritza eta lizarra (basalizarra da izatez). Lizarra eta basalizarra kaletarrentzako berezi ere ez dira egiten. Lizarra da bedeinkazinoa, hori da adarra ipintzen baduzu... Gero elizak onartu zuen, bedeinkatu egiten dira. San Juan goizean bedeinkatu egiten dira eta atean ipintzen dira. San Juan suak eta Eguberriko sua eta Olentzaro eta honek danok daude hor sartuta. Gaia da, astebetean egongo ginbateke hemen bai, astebetean, eta ondino pila bat eukiko genuke esateko.

Bueno, galderarik ez duzue batere egin.

Galdera: ze bibliografia dago paganismoari buruz?

Bueno, Barandiaran gehienbat. Nahiz eta nik berakin diskusino batzuk-eta euki nituen eta. Oso... Barandiaran bezelakorik sortuko al da beste norbait? Baina, bere eritxietan, uste dut germanismoaren zera ez zuela ondo ikusten, gehiegi zeukala... Horretaz behin hasi nintzan baina ez dakit gero nor etorri zan eta. Berak neri onartu zidan, bueno..., zer guztia. "Paganismoa". Izena bera ere guk ezarri behar bagenu... Paganismoa da erromatarrak mendekuan ipinitakoa.

Gero beste zer bat, eta amaitzeko. Aurkituko duzue euskal erlijioaren esaten den guztia eta beste antzinako erlijioak, loturak, ikaragarritzko loturak daude. Zergatik? Ba euskera ez dala hemen etnia isla, *lengua isla* hori. Ez dala egia. Hau da *resto*, *etnia resto*, *lengua resto*. Eta hortik abiatu beharko dute linguistak berriz reskatzera, ahal dala behintzat. Orduan, hor lotura ikaragarriak dagoz. Zergatik? Ba erlijioak mundu zaharreko, eta Ameriketakoak ere, nonbaiteraino jatorri berdinekoak zirelako. Gero sortu ziren gerrarako erlijioak. Eta hor ikusten da hebreotarren zerak, gerrarako bizi behar zuten eta. Gero indoeuroparrak, eta horrek puskatu dute dana. Gaur Txetxenian ere nagusi badira; eta gerrak justifikatu ditu erlijioak. Bestea ez zen gerrakoa. Bistan dago, orain txitxiburduntzi zelebratzen ari gara...

AMAIERA